

Esportazioek % 31,2 egin zuten gora Bizkaian, % 19,4 Araban eta % 17,1 Gipuzkoan, 2021ean

“10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” Araban, “Petrolioaren olio finduak” Bizkaian eta “Automobilentzako zati eta osagarriak” Gipuzkoan, produktu esportatuenak

ARABA

2021ean, Arabako lurralde historikoko ondasunen esportazioek % 19,4 egin zuten gora (1.190,7 milioi), 2020arekin alderatuta, eta % 2,7 (192,6 milioi), 2019arekin alderatuta; 7.340,5 milioi eurora iritsi ziren, Eustaten datuen arabera.

Inportazioek % 21,3 (794,4 milioi) egin zuten gora, 2020arekin alderatuta, eta % 8,3 (346,5 milioi), 2019arekin alderatuta; 4.529,9 milioi eurora iritsi ziren. Ondorioz, estaldura-tasa % 162,0koa izan zen.

Merkataritza hori funtsean “Errepidez” egiten da; % 69, esportazioen kasuan, eta % 81, inportazioen kasuan. Erabiltzen den beste garraibidea “Itsasokoa” da; % 29, esportazioen kasuan, eta % 15, inportazioen kasuan.

MERKATURATUTAKO PRODUKTUAK

Arabako esportazioetan, aurtan, “automobiligintzaren sektorea” nagusitu da; duela urte batzuk hasitako joerari jarraitzen zaio. Dena den, joera hori kolokan egon zen pandemiaren urtean. Hala, produktu garrantzitsuenen xehetasunak aztertuta –arantzel-partidak– ikusten dugu buruan (guztira 838 partida esportatzailearen kasuan, haietatik 224 milioi bat eurotik gorakoak) honako hauek daudela: “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (2.056 milioi), “Salgaiak garraiatzeko automobilak” (1.508 milioi), “Automobilentzako zati eta osagarriak” (401 milioi) eta “Kautxuzko pneumatiko berriak” (366 milioi); haien guztien artean, lurralde horretako esportazioen % 59 hartzen dute.

Arabako arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarrila - abendua 2021

	2020	2021	2021 %	2021 / 2020 %
Guztira	6.149.756	7.340.459	100	19,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.715.400	2.055.996	8,0	19,9
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	1.412.732	1.508.012	5,9	6,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	191.968	400.970	1,6	108,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	325.571	366.224	1,4	12,5
Ardoa, mahats freskoarena	190.713	197.536	0,8	3,6
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	110.720	174.404	0,7	57,5
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	206.182	170.199	0,7	-17,5
Kobrezko zakarrak eta hondakinak	56.828	87.957	0,3	54,8
Aireontzien parteak	93.498	82.365	0,3	-11,9
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	66.532	82.354	0,3	23,8

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Otsailaren 25a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Aipatu beharreko beste partida batzuk: “Ardoa, mahats freskoarena” (197,5 milioi), “Hodi eta profil hutsak, burdina edo altzairuzkoak” (174 milioi) eta “Kobrezko zakarrak eta hondakinak” (88 milioi); produktu horiek guztiek hainbat motatako hazkuntza-tasak izan dituzte, aurreko urtearekin alderatuta. Hala ere, bi partidak, lehen 10en artean daudenek, tasa negatiboak izan dituzte: “Aireontzien zatiak” (–% 11,9 eta 82 milioi esportatu), “Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak” (–% 17,5 eta 170 milioi).

Arabako inportazioak, neurri handi batean, logikoa den bezala, automobilen fabrikazioarekin lotzen dira; hala, hiru partida nagusiak “Automobilentzako zati eta osagarriak” (514,5 milioi), “Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak” (438,8 milioi) eta “Metagailu elektrikoak eta haien zatiak” (129,2 milioi) dira.

XEDE DIREN HERRIALDEAK

Euskal AEko kasuan bezala, kontzentrazio esportatzailea gertatzen da bost herrialdetan; 4.196,8 milioi metatzen dute, guztizkoaren % 57. Lehenik eta behin, Alemania dago (2.068 milioi), eta nabarmen nagusitzen dira “Automobilak eta haien zatiak” (herrialde horretara esportatutako guztizkoaren % 77,6); ondoren, Frantzia (1.093,6 milioi), eta, bertan, % 27,1 “Automobilak eta haien zatiak” partidari dagokio, eta produktu mota hori ere nagusia da boskotea eratzen duten beste hiru herrialdeetan. Hala, Erresuma Batuan 399,4 milioiren % 58,8 dagokio, eta Belgikan 310,6 milioiren % 74,2. Laugarren herrialdearen kasuan, Portugalen kasuan, “Automobilak eta haien zatiak” esportatutako 325,1 milioien % 14,1 dira, eta haren ondoren, baina oso hurbil, “Kobrea eta kobrezko manufakturak” (% 13,9) eta “Burdin edo altzairu galdaketa manufakturak” (% 11,2).

BIZKAIA

2021ean, Bizkaiko lurralde historikoko ondasunen esportazioek % 31,2 egin zuten gora (2.425,4 milioi), 2020arekin alderatuta, eta % 5,0 (485,6 milioi), 2019arekin alderatuta; 10.205 milioi eurora iritsi ziren.

Inportazioek % 41,9 (3.506,6 milioi) egin zuten gora, 2020arekin alderatuta, eta % 1,6 (185,4 milioi), 2019arekin alderatuta; 11.879,6 milioi eurora iritsi ziren. Ondorioz, estaldura-tasa % 85,9koa izan zen; alegia, esportatutakoa baino gehiago inportatu zen.

Merkataritza hori, funtsean, "Errepidez" egiten da (% 53), esportazioen kasuan, eta "Itsasoz" (% 71,3), inportazioen kasuan. Baina azken ehuneko hori "petrolio gordina"ren inportazioen baldintzapean dago. Itsaso bidezko merkataritza, gainera, esanguratsua da esportazioen kasuan; izan ere, guztizkoaren % 42,2 da. Errepideari, erosketen kasuan, % 25,7 dagokio.

MERKATURATUTAKO PRODUKTUAK

Bizkaiko esportazioek duten produktua nagusitu egiten da, nabarmen, besteen aldean: "*Petrolioaren olio finduek*" 1.165,6 milioi eragin zituzten (925 partida esportatzailearen kasuan; haietatik, 335 milioi bat euro baino gehiagokoak). Produktu horien ondoren, honako hauek nabarmentzen dira: "*Automobilentzako zati eta osagarriak*" (681 milioi), "*Kautxuzko pneumatiko berriak*" (677,7 milioi) eta "*Txapak eta zerrendak, aluminiozkoak, 0,2 mm-tik gorako lodiera dutenak*" (318,4 milioi). Ondoren daude "*Aluminio gordina*" (223,2 milioi) eta "*Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak*" (216,7 milioi). Sei arantzel-partida horiek lurralde horren esportazioen % 32 kontzentratu zuten.

Bizkaiko arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarila - abendua 2021

	2020	2021	2021 %	2021 / 2020 %
Guztira	7.779.566	10.204.983	100	31,2
Petrolioaren olio finduak	806.885	1.165.593	11,4	44,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	586.762	681.145	6,7	16,1
Kautxuzko pneumatiko berriak	576.384	677.742	6,6	17,6
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	200.862	318.439	3,1	58,5
Landu gabeko aluminioa	89.251	223.140	2,2	150,0
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	158.046	216.713	2,1	37,1
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalera-koak	66.644	216.065	2,1	224,2
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	124.611	210.859	2,1	69,2
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	107.044	204.947	2,0	91,5
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	249.796	198.457	1,9	-20,6

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Otsailaren 25a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaiko inportazioek honako hauek dituzte buru: *“Petrolioaren edo mineral bituminosoaren olio gordinak”* (3.148,2 milioi) eta, bigarrenik, *“Petrolioaren olio finduak”* (964,4 milioi). *“Soja-babak, baita hautsiak ere”* (484,2 milioi) hirugarren postuan daude, eta finkatu egin dute indarra, azken denboretan. Nabarmendu beharreko beste partida batzuk, aurrean izan duten garrantziagatik: *“Petrolio-gasa eta gainerako hidrokarburo gaseosoak”* (355 milioi) eta *“Industria kimikoko eta lotutako beste prestakin eta produktu batzuk”* (319 milioi).

XEDE DIREN HERRIALDEAK

Bizkaia kasuan, sei herrialdetan gertatzen da kontzentrazio esportatzailea, eta 6.032,6 milioi eragiten du horrek, guztizkoaren % 59. Lehenik eta behin, Frantzia dago (1.558 milioi); *“Galdaketa, burdina eta altzairuzko produktuak”* nagusitzen dira (herrialde horretara esportatutako guztiaren % 19,8), bai eta *“Erregai mineralak”* (% 10,9) eta *“Automobilak eta haien zatiak”* (% 10,1) ere. Ondoren, Alemania dago (1.184,6 milioi): % 25,2 *“Galdaketa, burdina eta altzairuzko produktuei”* dagokiela, % 18,6 *“Automobil eta haien zatiei”* eta % 13,2 *“Kautxu eta kautxuzko manufaktuei”*. Jarraian, Herbehereak daude (856 milioi); % 31,4 *“Erregai mineralak”* dagokie, % 20,4 *“Koipe eta olio mineralak”* eta % 11,4 *“Aluminio eta aluminiozko manufaktuei”*. Laugarren postuan Belgika dago (833 milioi); kopuru horretatik, % 40,6 *“Erregai mineralak”* dira. Azken produktu hori nagusi da, halaber, Ameriketako Estatu Batuetara bideratutako esportazioetan (guztizkoaren 816 milioi), % 46 baitagokie. Erresuma Batuari, Bizkaitik, 784 milioi euro saltzen zaizkio, guztira.

GIPUZKOA

2021ean, Gipuzkoako lurralde historikoko ondasunen esportazioek % 17,1 egin zuten gora (1.184,8 milioi), 2020arekin alderatuta, baina % 4,8 egin zuten atzera (485,6 milioi), 2019arekin alderatuta; 8.120 milioi eurora iritsi ziren.

Inportazioak % 29,3 (1.054 milioi) igo ziren, 2020arekin alderatuta, eta % 9,6 (406,5 milioi), 2019arekin alderatuta; 4.650,3 milioi eurora iritsi ziren. Ondorioz, estaldura-tasa % 174,6koa izan zen; alegia, inportatutakoa baino gehiago esportatzen da.

Merkataritza hori funtsean *“Errepidez”* egiten da; % 66, esportazioen kasuan, eta % 67, inportazioen kasuan. Erabiltzen den beste garraiobidea *“Itsasokoa”* da; % 29, esportazioen kasuan, eta % 26, inportazioen kasuan.

MERKATURATUTAKO PRODUKTUAK

Gipuzkoako esportazioetan, 2021ean, automobilgintzarekin zerikusia duten produktuak nagusitu dira. Hala, rankingeko lehen produktua *“Automobilentzako zati eta osagarriak”* (667 milioi) da, laugarrena *“Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak”* (329 milioi) eta seigarrena *“Trenbide eta antzekoen mantentze- edo zerbitzu-lanetarako ibilgailuak”* (195 milioi). Gipuzkoan 886 muga-zergeren partida mota esportatu dira, guztira, eta, haietatik, 318 milioi bat euro baino gehiagokoak.

Gipuzkoako arantzel-partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Metatua urtarrila -abendua 2021

	2020	2021	2021 %	2021 / 2020 %
Guztira	6.935.225	8.119.992	100	17,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	643.185	667.083	8,2	3,7
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	318.577	629.737	7,8	97,7
Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	331.166	382.781	4,7	15,6
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	345.113	329.415	4,1	-4,5
Hariak, isolatutako eroale elektrikoko kableak eta zuntz optikoko kableak	149.489	214.089	2,6	43,2
Trenbideak eta antzekoak mantentzeko edo zerbitzatzeko ibilgailuak	12.727	194.919	2,4	1431,6
Ontziak eta paketatzenko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzenko makinak	150.076	184.265	2,3	22,8
Metal arruntezko giltzarriak, sarriak, morroiloak eta giltzak	164.716	183.280	2,3	11,3
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiogailuak...	168.957	170.431	2,1	0,9
Burdina edo altzairuzko gainerako enbusturak	145.411	161.858	2,0	11,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Otsailaren 25a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoako inportazioetan honako hauek nabarmendu behar dira, garrantzia kontuan hartuta, eta partida garrantzitsuenen barruan: “*Galdaketako, burdinazko edo altzairuzko txatarrari*” dagozkion 227 milioi, “*Egur sosa-ore kimikoa edo sulfato-oreari*” dagozkion 152 milioi, “*Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak*” dagozkien 196 milioi, “*Automobilentzako zati eta osagarriak*” dagozkien 120,7 milioi eta “*Arrain fresko edo hoztuak*” dagozkion 99,6 milioi.

XEDE DIREN HERRIALDEAK

Gipuzkoaren kasuan, kontzentrazio esportatzailea zazpi herrialdetan gertatzen da, eta 4.514,8 milioi eragiten du horrek, guztizkoaren % 55,6. Lehenik eta behin, Frantzia dago (1.468,5 milioi); “Galdarak, makinak eta tresna mekanikoak” nagusitzen dira (herrialde horretara esportatutako guztia % 14,4), bai eta “Galdaketa, burdina eta altzairuzko enbusturak” (% 12,5) eta “Automobilak eta haien zatiak” (% 12,0) ere. Ondoren, Alemania dago (839,6 milioi): % 26,5 “Galdara, makina eta tresna mekanikoei” dagokie, % 19,3 “Automobil eta haien zatiei” eta % 17,0 “Galdaketa, burdina eta altzairuzko enbusturak”. Jarraian, Erresuma Batua dago (511,2 milioi): % 388,8 “Galdaketa, burdina eta altzairuzko produktuei” dagokie, % 16,8 “Galdara, makina eta tresna mekanikoei” eta % 9,1 “Automobil eta haien zatiei”. Laugarren postuan Ameriketako Estatu Batuak daude (496,6 milioi): % 44,7 “Galdara, makina eta tresna mekanikoei” dagokie eta % 8,8 “Arma eta munizio, horien parte eta osagarriak”. Herrialde horren ondoren, Italia dago (456,5 milioi): % 26,4 “Galdara, makina eta tresna mekanikoei” dagokie, % 13,2 “Makina, aparatu eta material elektrikoak” eta % 12,0 “Automobil eta haien zatiei”. Ondoren, Portugal (391 milioi) eta Herbehereak (351 milioi) daude.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62